

DUn ikasten ari zara, atzerriko ikasleak ezagutu nahi dituzu eta, bide batez, hizkuntza bat praktikatu?

Deustuko Unibertsitatean, bertoko ikasle asko eta gero eta atzerriko ikasle gehiago dago Unibertsitatea aukeratzen dutenak nazioarteko mugikortasun akademikoko programa bat egiteko. Bertoko ikasleek bigarren edo hirugarren hizkuntzak ikasten dituzte; bisitariak, berriz, espainiera ikasten dute, gehien bat. Beharrian horiek kontuan hartuta, bi taldeek lagundu diezaiokete elkarri eta beste hizkuntza eta kultura batzuk hobeto ezagutu, bide batez adiskidetasuna ere sortzen delarik.

Programaren funtzionamendua

Tandemean hizkuntzak ikastea ikasteko modu autonomoa da: zuk eta zure tandemeko kideak hizkuntza truke horien topaketak antolatuko dituzue, baita zenbateko iraupena eta maiztasuna izango duten ere.

Deustuko Unibertsitateko Tandem programan...

- ikaskide bat esleitzen dizugu, harekin beste hizkuntza bat praktikatzeko
- metodologiari buruzko jarraibide erraz eta oinarrizko aholku batzuk ematen dizkizugu ahozko hutsak zuzentzeari buruz
- koordinatzailearekin harremanetan jarri zaitezke tandem@deusto.es helbide elektronikoaren bidez, Tandem programaren funtzionamenduari buruzko zalantza edo arazorik baduzue. Tandem programan interesatuta bazaude, bete [izena emateko inprimakia](#).
- seihilekoaren amaieran, mezu elektroniko bat bidaliko dizuegu, barruan galde-sorta anonimo batekin, programa ebaluatzeko eta hobetzeko zuen iradokizunak eman ditzazuen.

Tandem programan Deustuko Unibertsitateko ikasleek bakarrik hartu dezakete parte. Programa horretan parte hartu nahi baduzu, **Eman izena** atalean ageri den estekako instrukzioei jarraituz eman dezakezu izena. Programak aukeratu dituzuen hizkuntzak praktikatu nahi dituzuen bi ikasle jarriko zaituzte harremanetan. Une horretatik aurrera erabateko autonomiaz egingo duzue lan eta zuen topaketak beharrianen eta libre dituzuen tarteen arabera adostuko dituzue.

[Eman izena](#)

Metodologia

Hizkuntzak ikasteko metodo eraginkorra da. Honetan datza: bi pertsona aldi-aldi elkartu eta batek bestearen hizkuntza ikasten du. Hona hemen ezaugarrietariko batzuk:

- **Komunikazio ez hain akademikoa.** Tandemean, jatorrizko hiztun batekin batera, komunikazioko ekintza zuzena izaten duzu. Gainera, tandemeko gure kidea ere ikastuna da. Horrek murriztu egiten ditu inhibizioak atzerriko hizkuntzako akatsak egiteko orduan. Giro naturalean elkarrekin ikasten duten bi pertsona izatean, ia kanpoko kontrolik gabe, ikaskuntza prozesua askatu egiten da nabarmen eta horrek aprobetxamendu handiagoa ateratzeko modua ematen du.
- **Gramatika baino gehiago:** Kontua ez da soilik atzerriko hizkuntza bat ikastea, beste pertsona batekin eta haren kultura, gizarte, lanbidearekin harremana

sortzea ere bada. Adibidez, kultura bakoitzak du emozioak adierazteko, laudorioak egiteko eta onartzeko modua edo tabu propioak. Berezitasun horietan trebatu daiteke ikasle bakoitza, zuzeneko harremanaren bidez eta jatorrizko hiztuna behatuz.

- **Elkarrekikotasun printzipioa:** Tandemeko ikaskuntzaren aprobetxamendua bi kideek elkarri laguntzean oinarritzen da: bikoteko kide bakoitza bestearen ikaskuntzaren arduradun da. Hori dela eta, biek ahalegindu beharko dute elkarri laguntzen. Tandemeko lanaren arrakasta elkarren arteko konfiantzazko harremanean oinarritzen da: bi kideak eroso sentitu behar dira batek besteari laguntza eskatzeko, laguntza emateko eta jasotzeko, biek adostuta zein errore zuzendu eta zein maiztasunekin zuzendu erabakitzeko.

Programak ondo funtzionatzeko aholku batzuk

- **Hizkuntzen banaketa:** goian esan dugunez, tandemak elkarrekikotasun printzipioan oinarritzen da. Elkarri laguntzea atal berdinetan egiten da: denboraren erdia hizkuntza baterako eta beste erdia besterako. Hortaz, ezin da hizkuntza bat bestearen gainetik nagusitu. Ikasleei gomendatzen diegu hasieratik erabaki dezatela zein hizkuntzarekin hasi eta noiz arte erabiliko duten. Funtsezkoa da hori guztia argi eta garbi zedarrituta egotea, pertsona guztiak ez baitira maila berean irekiak eta desinhibituak. Arau horiek hasieratik ezarrita badaude, partaideetako batek besteak baino onura gehiago izatea saihestuko dugu. Adibidez, espainieraz hitz egitea tokatzen den fasean bagaude, sortu daitezkeen arazo komunikatibo guztiak espainieraz konpondu behar dira, eta inoiz ezin da beste hizkuntzara salto egin. Bestalde, ez da komeni ahozko komunikazioa hiztegian hitzak bilatuz oztopatzea ere, edo hirugarren hizkuntza komun batera, ingelesera adibidez, pasatuz ere (baldin eta ingelesa tandemean une horretan erabiltzen ari zareten hizkuntza ez bada).
- **Hutsen zuzenketa:** nolako hutsen zuzenketa egin ere negoziatu beharko dute partaideek. Batzuek nahiago dute momentuan bertan zuzentzea, akatsak egin ahala komentatzea: uste dute, atzeratuta, galdu egiten dela akatsaren testuingurua eta zuzenketak eraginkortasuna galtzen duela. Beste batzuek nahiago dute zuzenketa ondoren egitea, eta ikaskideak oharrak hartu eta geroago komentatzen dituzte, saioaren amaieran. Azkenik, hirugarren batzuek nahiago dute inolako zuzenketarik ez egitea, komunikazioari eta jarioari lehentasuna emateko. Nolanahi ere, ez da oso gomendagarria akats guztiak zuzentzea. Egokiena gutxi batzuk hartzea da, eta larrienak zeintzuk diren ezartzea eta maizen zeintzuk egiten diren ikustea, errentagarritasun kontuengatik.
- **Aldizkakotasuna:** topaketak noiz egin, zenbat denboratik zenbat denborara, helburuaren eta bakoitzak libre duen ordutegiaren arabera finkatuko da. Hala ere, gomendatzen da topaketak sistematikoak izatea, programatuak eta denboran iraunkorrak. Adibidez, astean ordubete inguruko topaketa bat aukera ona izan daiteke.